

MULTIABENTURA UDALEKUAK BAZTAN BERTIZ

BKZ Nafarroa Abenturan udalekuak antolatu ahal izateko Osasun agintariak ezarritako neurriak aintzat hartu ditugu eta udalekuak berme guztiekin egin ahal izateko beharrezkoak diren protokoloak eta osasun baldintzak ezarri ditugu.

Hartu ditugun neurrien helburu nagusia udalekua baldintza egokietan burutu ahal izatea da, partehartzaileen segurtasuna eta osasuna bermatuz eta udalekuek duten berezko funtsa mantenduz.

Ondoren udalekuetan hartuko diren neurri nagusiak aipatzen dizkizuegu:

- **Instalazio eta materialen mantentze eta garbiketa:** Aterpe, instalazio eta partehartzaileek erabilitako materialak garbitzerakoan osasun agintariak ezarritako protokolo guztiak jarraituko dira.
- **Aterpeen edukiera:** %50ekoa izango da. Taldeak 10eko azpitaldetan antolatuko dira eta udaleku osoan zehar begirale bera izanen dute. Gelen atarian soluzio hidroalkoholikoak jarriko dira eta aterpearen perimotrotik ateratzea debekatua egongo da, begiraleen baimenarekin ez bada.
- **Begirale taldea:** Begiraleek jarraitu beharreko protokoloen inguruko formakuntza berezia jasoko dute. Udaleku hasieran partehartzaileei jarraitu beharreko neurrien inguruan hitzegingo diete, norberaren arduraren garrantzia azpimarratuz eta osasun eta elkarbizitza arauak azalduz. Aipatutako arauak udaleku guztian zehar landuko dira.
- **Joan-etorriak:** Antolakuntzak autobusa jarriko du hiri bakoitzatik gutxienez 20 hurrek parte hartzen badute. Bestela gurasoak arduratuko dira bere seme alabak udalekura ekarri eta jasotzeaz. Gure autobusan egingo diren joan-etorrietan agintari eskudunek ezarritako protokoloak jarraituko dira, partehartzaileak maskararekin joango dira eta beti jarleku berdinean eseriko dira.
- **Ekintzak:** Natur giro eta leku irekietan egiten diren ekintzak lehenetsiko dira. Landa eremuan gaudenez oso leku aproposa da. Jende pilaketak ekiditeko taldeak 10eko azpitaldetan antolatuko dira eta segurtasun distantzia mantenduko da. Begiraleek prebentzio neurriak gogoratuko dituzte uneoro (segurtasun distantzia, beharrezkoa bada maskararen erabilpena...)
- **Garbitasun eta prebentzio neurriak:** Segurtasun distantzia bermatu ezin denean maskara erabiliko da. Gainera garbitasun eta prebentzio neurriak indartuko dira: Eskuak garbitzeko gel hidroalkoholikoak erabiliko dira, partehartzaileek sintomak dituzten zainduko da, harrera unean eta udalekuan zehar hurrei egunero tenperatura hartuko zaie eta Doneztebeko osasun zentroarekin koordinatuak egongo gara.
- Guraso-Tutoreek ardurapeko deklarazio bat sinatu beharko dute, udalekuaren aurreko 14 egunetan bere seme-alabaren osasuna ona izan dela eta infekzio sintomarik ez duela izan bermatuz.

➤ PARTEHARTZAILEEK EKARRI BEHAR DUTEN MATERIALA

- Hurraren osasun txartelaren kopia.
- Galtza luze eta motzak.
- Kamisetak.
- Txandala.
- Txubaskeroa.
- Jertsea edo forro polar fina.
- Barruko arropak, mudak eta galtzerdiak.
- Pijama.
- Kirol zapatilak eta mendiko botak (ez erosi berriak, botak ez badituzte beste zapatil pare bat ekarri).
- Txankletak dutxarako.
- Aterpean erabiltzeko zapatilla edo txankletak.
- Uretako ekintzak egiteko: Bustitzeko zapatilla zaharrak, bainujantzia eta toalla.
- Norberaren garbiketarako gauzak eta dutxarako toalla.
- Udalekuan erabili ahal izateko maskarak.
- Guk denendako hidrogela izango dugu (Nahi baduzue txiki bat ekarri).
- Txapela.
- Eguzkitarako krema.
- Motxila txikia ekintzetara eramateko.
- Lo zakua.
- Esterilla. (Gauren batean vivac egiten badute erabiltzeko).
- Linterna.
- Kantimplora.

MULTIABENTURA UDALEKUAK BAZTAN BERTIZ

948 59 23 22/ 646 75 57 60/ 659 08 14 31

udalekuak@navarraaventura.com

